



BESTE MODURA

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, kontserbak,
ardo, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz
etiketatuta eta jatorrizko prezioan



DENONA



DA ONURA

Martxoak 10-26
errigora.eus

Egungo kontsumo ereduaren onuradun nagusiak bitartekariak dira, herritarron elikadura negoziatorako tresna erabiliz aberasten direnak. Horrek kinka larrian jartzen gaitu ekoizle nahiz kontsumitzaileak, horien ongizatea enpresarien espekulazio-ariketek baldintzatzen dutelarik. Testuinguru ezegonkor honek bestelako eredu bat sortu eta bultzatzeko beharra etengabe azaleratzen du.

Zein da beste modu hori?

Elikadura burujabetza da Euskal Herrian kontsumitzen ditugun elikagaiak hemen ekoiztuak izateaz gain, elikagaien ziklo guztiaren gaineko (ekoizpena, banaketa eta kontsumoa) erabakimena ere herriaren eskuetan egotea. Horretarako, ekoizle nahiz kontsumitzaileen parte- eta kontzientzia-hartzea ezinbestekoak dira. Bide hori sustatuz, denon komunitate osoaren (ekoizle zein kontsumitzaileen) zaintza helburu nagusi bilakatzen da. Horrela, eskematik kanpo uzten ditugu bata zein bestearen miseria elikatzen duten enpresa erraldoien interesak. Bestelako kontsumo bat bultzatzeak, onurak dakartzkigu denontzat. Errigoraz gain, badaude herriz herri bestelako kontsumo eredu baten alde lanean dabiltzan kontsumo-elkarte eta bestelako ekimenak ere.

Zeintzuk dira onura horiek?

Onurak pertsonalak zein kolektiboak izan daitezke, eta gure ustez guztiz lotuta doaz bata bestearekin. Elikadura burujabetzaranzko bide honek ekoizpena eta kontsumoaren arteko bitartekaritza-eredua eraldatzearekin batera, horien arteko zubiak sortzen ditu. Biak hurbiltzeak gardentasunean eta sareak sortzean aurrera pausoak ematen laguntzen digu, horrela, euskal lurraldeen arteko lotura ekonomiko zein sozialetan sakonduz.

Horretaz gain, kontsumitzaile izatea ulertzeko modua ere iraultzen laguntzen digu. Horiek izaera pasibotik, aktore izatera jauzi eginez, parte-hartzearen bidez kontsumitzaileek ere elikadura-sisteman zerresana dutela erakutsiz, eta bertatik eraginez. Izan ere, kanpaina honen ibilbidean argi geratu da kontsumitzaileek ere eragina izan dezaketela ekoizpenean. Adibidez, pikillo piperren kasua; hainbestekoa zen Errigorako kontsumitzaileen eskakizuna, ekoizleek lur-sail berriak landu behar izan zituztela kontsumitzaileen beharrianari erantzuteko. Beste adibide garbia da Hazialdekorena; kontsumitzaileei eskaeri eta konpromisuari esker lortu zen Nafarroako lekaleen ekoizpena berreskuratzea eta nekazariak horren aldeko apustua egitea, Errigoraren eskutik.

Horri guztiari gehitu beharreko azken onura babesarena da. Kanpaina honen bidez kontsumitzaileen beharrianak kontuan hartzeaz gain, luraren osasunean ere jartzen baitugu azpimarra. Ekoizpen-kate motzagoak elikatzen eta nekazaritza-eredu jasangarriagoak elikatzen ditugu bertan parte hartzen dugun kontsumitzaileok, guztion etorkizunerako behar-beharrezkoak direnak.

- » **Onurak ekoizleentzat:** Kanpaina honen bidez Agerreko ekoizleei kontsumitzaile konprometituen sare trinko bat jartzen diegu eskura, zeina baloreetan oinarritutako eta bi aldeentzako bidezkoa den harreman bat bultzatzeko prest dagoen. Horren bidez, ekoizleak ekoizten dituen produktuek aterabidea izango duela ziurtatzen dute.
- » **Onurak Nafarroarentzat:** Eskutik Eskuran Nafarroan landatu eta ekoizitako produktuak zabaltzen ditugu Euskal Herri osora. Horrela, bertako produktuak ezagutzera eman eta ekoizpena indartzeko aukera paregabea da.
- » **Onurak Euskal Herriarentzat:** Elikadura burujabetzaren ildoan zentratutako kanpaina da Eskutik Eskura. Honek Euskal Herritik eta Euskal Herriarentzat lan egiteko norabidea ematen digu. Bertako beharrei erantzuten dien sareak eta eskaintza bat plazaratzea du helburu. Horren bidez, euskal lurraldeen arteko loturak areagotzen laguntzen digu.

Azken urteetako eskema errepikatuko dugu aurtengoan ere: urte guztirako eskaerak egitea da planteatzen duguna eta, hortaz, oliba-olio birjina estra bidoi handietan eskainiko dugu eta gainontzeko produktuak 12 unitateko sortetan. Salbuespena dira, iaz bezala, ardoa eta arroz ekologikoa seiko lotetan banatuko dena. Ohikoa denez, hainbat **berrikuntza** izango dira aurtengoan:

Ardo-sortak (6 botilekoak) ere baditugu aurtengoan. Guzti-guztiak eredu ekologikoan ekoiziak dira eta bi motako sortak ditugu: ardo bereziak eta gorenak.

- **Ardo bereziak:** Lote honetan Errigoran parte hartzen duten upategietako ardo bitxien aukeraketa bat aurkituko duzue: sulfirik gabeko ardoak, ardo onduak izan gabe frutaren freskotasuna eta egur-ukitua mantentzen duten ardo erdionduak, beratze karbonikoko ardoak... Azken batean, ekonomikoa izan arren berezia den ardo sorta bat.
- **Ardo gorenak:** Lote honetan ardoen lan-ildo klasikoan murgiltzen gara. Eta bertan, ardo onduak aurki ditzakegu, dedikazio handiagoa behar duten elaborazio luzeako ardoak. Ardo txuria eta gorria sartu dugunez apur bat garestitu da lotea aurten. Ardo txuria ez da ohiko txuria, kolore arrosa du. Mahats beltzetatik ateratako ardo txuria delako.

Arroz konbentzionala (12kgko lotea) itzuliko da gure katalogora. 12Kgko bi lote desberdin izango ditugu: bonba eta lido.

Lekaleak, hau da, dilista eta txitxirioak, lehen aldiz bakoitzak bere lote propioa izanen du, kiloko paketeetan etorriko direnak.

Arbendolak moten arabera banatutako loteetan eskainiko ditugu 120g-ko 12 paketeen loteetan: batetik, txigortuak gatzarekin eta naturalak bestetik.

Pasta loteak ere izango ditugu, 400 g-ko paketeetan ohiko makarroi txuria eta albahaka fussiliariaz, belar probentzal zaporedun fussiliak gehituko zaizkie.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|--|--|
| <p>Dilistak Dilista lehorrak KILOKO 12 PAKETE 61€ 5,08€/u</p> | <p>Zainzuriak Zainzuri zurri lodak (8/12) 425ML-KO 12 ONTZI 48€ 4,00€/u</p> | <p>Zainzuriak Zainzuri zurri lodak (8/12) 425ML-KO 12 ONTZI 47€ 3,92€/u</p> | <p>Piperrak Pikilo piperr osok (9/12) 250ML-KO 12 ONTZI 40€ 3,33€/u</p> | <p>Piperrak Pikilo piperr osok (18/22) 425ML-KO 12 ONTZI 44€ 3,67€/u</p> | <p>Menestra Barazki-menestra 720ML-KO 12 ONTZI 79€ 6,58€/u</p> | <p>Agortu daitezke</p> <p>Ardo bereziak Ardo berezi 750ML-KO 6 BOTILA 29€ 4,83€/u</p> <p>Ardo gorenak Ardo beltza, gorria eta zuria 750ML-KO 6 BOTILA 45€ 7,50€/u</p> |
| <p>Txitxirioak Txitxirio lehorrak KILOKO 12 PAKETE 61€ 5,08€/u</p> | <p>Orburuak Orburu bihurtzak 720ML-KO 12 ONTZI 84€ 7,00€/u</p> | <p>Orburuak Orburu bihurtzak 720ML-KO 12 ONTZI 72€ 6,00€/u</p> | <p>Kardua Kardu zurtsua 720ML-KO 12 ONTZI 27€ 2,25€/u</p> | <p>Kardua Kardu zurtsua 720ML-KO 12 ONTZI 26€ 2,17€/u</p> | <p>Arbendolak Naturalak 1200G-KO 12 PAKETE 27€ 2,25€/u</p> | |
| <p>Arroza Lido ontzi zuria KILOKO 6 PAKETE 36€ 3,00€/u</p> | <p>Barazkiak Barazki zurri-jarriak eta lokak 720ML-KO 12 ONTZI 38€ 3,17€/u</p> | <p>Barazkiak Barazki zurri-jarriak eta lokak 720ML-KO 12 ONTZI 35€ 2,75€/u</p> | <p>Tomatea Tomate frigitua 370ML-KO 12 ONTZI 23€ 1,92€/u</p> | <p>Tomatea Tomate frigitua 370ML-KO 12 ONTZI 17€ 1,42€/u</p> | <p>Arbendolak Tigortuak gatzarekin 1200G-KO 12 PAKETE 30€ 2,50€/u</p> | |
| <p>Arroza Lido ontzi zuria KILOKO 6 PAKETE 53€ 4,42€/u</p> | <p>Babarrunak Babarrun gorriak 720ML-KO 12 ONTZI 41€ 3,42€/u</p> | <p>Babarrunak Babarrun gorriak 720ML-KO 12 ONTZI 32€ 2,67€/u</p> | <p>Potxak Potxe zurri eta berdeak 720ML-KO 12 ONTZI 50€ 4,17€/u</p> | <p>Txitxirioak Txitxirioak 720ML-KO 12 ONTZI 27€ 2,25€/u</p> | <p>Pasta Makarroi txuria, albahaka fustil eta probentzalek belar fustil 400G-KO 12 PAKETE 42€ 3,50€/u</p> | |
| <p>Arroza Erdiluze txuria KILOKO 6 PAKETE 26€ 4,33€/u</p> | <p>errigora.eus (+33) 532 09 35 45 (+34) 848 87 12 23 9:00 - 13:30 5/7</p> | <p>Arbekina Oliba-olio birjina extra ekologikoa 5 LITROKO ONTZIA 42€ 8,40€/l</p> | <p>Arroitx Oliba-olio birjina extra ekologikoa 5 LITROKO ONTZIA 53€ 10,60€/l</p> | <p>Pikual Oliba-olio birjina extra 5 LITROKO ONTZIA 32€ 6,40€/l</p> | <p>Enpeltre Oliba-olio birjina extra 5 LITROKO ONTZIA 32€ 6,40€/l</p> | |

- **Eskaerak egiteko epea:** martxoak 10 - 26
 - » Datuak sartzeko epea: aparteko eskaerarik helduko balitzaigu, jaso ahala erregistratu (azken eguna martxoak 28).
 - » Behin betiko datuak: martxoak 31.
 - **Sarekideen topaketak:** martxoaren 29an, Mendigorrian.
 - **Online ordaintzak:**
 - » Bi zatitan ordaintzeko (150€tik gorako eskaeren kasuan soilik): martxoak 31.
 - » Apirilaren 1etik aurrera dena batera ordaindu beharko da.
 - » Online ordaintzeko azken eguna: apirilak 27.
 - **Deskargak** (produktu guztiak batera):
 - » Ipar EH: apirilak 29-30
 - » Gipuzkoa: apirilak 29 – maiatzak 14
 - » Araba: maiatzak 9, maiatzak 14-15
 - » Bizkaia: maiatzak 16-26
 - » Nafarroa Garaia: maiatzak 27-30
- € **Eskudirutan jasotako diru-sarrerak:** ekainaren 13ra arte.

| | | ■ Eskaerak | | ■ Bi zatitan ordaintzeko azken eguna | | | | |
|--|--|------------------------|----|--------------------------------------|----|----|----|----|
| | | ■ Sarekideen topaketak | | ■ Datuak sartzeko epea | | 1 | 2 | |
| | | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| | | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| | | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| | | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| | | 31 | | | | | | |

| | | | | | | | |
|--|----|----|----|----|----|----|----|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| | | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| | 28 | 29 | 30 | | | | |

■ Online ordaintzeko azken eguna ■ Deskargak

Ipar EH Gipuzkoa Ipar EH Gipuzkoa

MAIATZA

■ Deskargak

| | | | | | | |
|--------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|--------------------|--------------------|
| | | | 1 Gipuzkoa | 2 Gipuzkoa | 3 Gipuzkoa | 4 Gipuzkoa |
| 5 Gipuzkoa | 6 Gipuzkoa | 7 Gipuzkoa | 8 Gipuzkoa | 9 Gipuzkoa Araba | 10 Gipuzkoa | 11 Gipuzkoa |
| 12 Gipuzkoa | 13 Gipuzkoa | 14 Gipuzkoa Araba | 15 Araba | 16 Bizkaia | 17 Bizkaia | 18 Bizkaia |
| 19 Bizkaia | 20 Bizkaia | 21 Bizkaia | 22 Bizkaia | 23 Bizkaia | 24 Bizkaia | 25 Bizkaia |
| 26 Bizkaia | 27 Nafarroa Garaia | 28 Nafarroa Garaia | 29 Nafarroa Garaia | 30 Nafarroa Garaia | 31 | |

Eskutik Eskura '25 ERRONKAK

Eskatzaile ohiak berreskuratu eta leialak ziurtatu

- » Aurreko kanpaina, Euskarari Puzkan, eskatzaile ohietara iristeko ahalegina egin dugu eta banaketa gune batzuetan modu batera edo bestera lortu da, emaitzetan eraginez. Horregatik uste dugu, kanpainen kontuan izatekoak direla eskatzaile ohiak, batzuetan ez baitute eskatzen data pasatu zaielako edo adi ez direlako egon. Eskatzaile leialak ere hurbiletik jarraitu eta kanpaina parte hartu dutela ziurtartzea ere garrantzitsua dela uste dugu.
- » Guneko kontrol panela erabiliz, Historia botoia sakatuz aurreko urteetako eskatzaileen zerrenda topatuko duzue. Baina gainera aurten, tresna bat gehiago emango dizuegu, jadanik eskatu dutenak modu errezean ikusi eta haiekin harremanetan jartzea errazteko.

Eremu berrietara iritsi

- » Sinetsita gaude oraindik Euskal Herriko txoko askotan ez dutela Errigora ezagutzen, eta jakin badakigu sarea dela gure potentzialik handiena. Horregatik auzolan komunikatibo erraldoi honentzat euskarri berri bat egin dugu: Errigora zer den ez dakiten talde berrietara iristeko eskuorria. Errigora azaltzen lagunduko zaituztelakoan agian eskoletan zabaldu daiteke, elkarteetara eraman, tabernetan utzi, azoka batean banatu... Ziur gara erabilera asko bururatuko zaizkizuela.

Taldetxoak sortu herrietan

- » Ia 300 banaketa gune irekiko dira kanpaina honetan eta bakoitzean modu ezberdin batean funtzionatzen duzue. Praktika onak zabaldu nahiean, konturatu gara banaketa gune batean pertsona bat baino gehiago daudenean eskatzaile gehiagorengana iristea lortzen dutela. Horregatik ere, animatzen zaituztegu kanpaina eta banaketan lagunduko duten aliatuak bilatzera edo taldetxoak sortzera.